

ortzadar

Larunbata, 2013ko irailaren 21a. 322 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

1977. URTEKO 'SOINU-BANDA'

Hamabost urtez, poesia
musikatzen bainoago,
letrak sortzen

— 4-5. orrialdeak —

OROIMENA MUGARRITUZ

Nafarroa Bizirik Ekimenak
Erresumako gazteluak
dakartza gogora

— 6. orrialdea —



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski

ATARIA

Bitxikeriak



LUXUE APAOLAZA

ORDENAGAILUA konpartitzen denean, noizean behin, piztu, eta aurreko erabiltzaileak irekitako orrialdeekin topo egiten duzu. Egunkari bateko argazkia azaldu zitzaidan niri; espaloi batean jarrita, burdinazko bota pareta. Batailaren batean hildako soldaduei egiten zaizkien omenaldiak etorri zitzaizkidan gogora; sarraskiren baten zendutako zibilen memoria gordetzekoak; edo oraindik memoria izatera iritsi gabe, gerran diren herrialdeetako errepedeetan aurkitzen diren oinetako abandonatuak; edo memoria berreskuratu berria, frankismoak hil zituztenen botak indusketek argitutako hilobietan. Egun hartan ikusten ari nintzen argazkia ordea, Las Palmas Kanaria Handikoan zaharberritzera eramandako eskultura baten parte bat ziren, polizia nazionalaren auto batek jo ondoren. Lolita Plumaren eskultura.

Niretzat oroitzen kutsatua zen emakume hura, berez, ez bainuen inoiz ikusi; Kanarietako lagun batek beretik nire memoriara iraultako irudiak ziren nituenak. Nire lagunari kosta egiten zaizkio guztiz zentzudunak diren pertsonak, erosoago sentitzen da zenbait eromenen zorian, Lolita Plumarekin kasu. Katuak

lagun, Santa Katalina parkean txikleak salduz bizi zen emakume adindua zen, makillaje deigarri, koloretako zintak ilean, turisten eta bertakoen atrakzio, bakoitzak bere lezioa atera zezan. Nire memorian atal bera okupatzen dute Santiagoko Mariek, kolore bizien atzean ezkutatuturik baita ere, eskulturadun horiek ere; egunkarietako orrialdeetan ikusi genituen bi ahizpa ziren, frankismoan bizi izandako emakume adinduak. Eta nola ez, espazio berean, pelikula batek omendu zuen, *La Moños*, Bartzelonako kaleak ibiltzen zituena.

Bakoitzak bere historia du, beste hainbat emakumerena dirudiena. Behar ez zenak haurdun utzi eta umea umezurztegian uztera behartuak; umea lapurtu zietenak; bortxatu zituztenak; familia hil eta bortxatu zituztenak. Ezin zenean bikoteagandik bereizi zirenak, edo gizonak abandonatu zituenak. Askok normalak izaten jarraitu zuten, edo etxean erotu ziren, hiri bateko atrakzio bitxi bihurtu gabe, isilik. Bitxiak; (bide batez, alardeetan ateratzen tematzen diren emakumeak askori iruditzen zaizkion bezala).

Duela ez asko irakurritako liburu batetara joan zitzaidan gogo; *Hormako paper horia*, Charlot-

te Perkinsena, Ana I. Moralesek euskarara itzulia. Emakume batek bere pentsamenduak kontatzen dizkigu gaixotasun lauso batek jo omen duelako horma horidun gela batean itxita dagoen bitartean. XIX. mendean dago kokatua, emakumeoi hainbeste gaixotasun zegozkigun garaia. Gaixo, bitxi. Histeriko. Espainiako prentsa progresistak ere halakotzat jo zuen Hillary Clintonen erantzuna prentsaurreko batean bere senar Bill-en agendari buruz galde-tu zion kazetariari Estatu Idazkaria bera zela gogora arazi zionean. Histeriko jarri zen.

Lanera abiatu aurretik nik zenbat eromen zantzu moztortzen dudak kalkulatu saiatu naiz ispilu aurrean; beldurtu egin naiz nire zentzu onaz. Eguna hasteko nire zain ditudan zapatila hutsei begira, artikulu hasieran aipaturiko argazkiko bota haiek gogoratu ditut. Beharbada bai, agian biktima botak dira, aipaturako gainerako oinetakoak bezala; guk deklaratu gabe dugun guda batetara jaikitzen gara egunero, bake garaietako jarreraz, biktimak bitxikeriatzat zenbatuz. Baina hau gerra kontu bat balitz politika orrialdeetan legoke, oraintxe nazioen dialektika baino ulertzen ez duten horietan, ez?

Nire lagunari kosta egiten zaizkio guztiz zentzudunak diren pertsonak, erosoago sentitzen da zenbait eromenen zorian, Lolita Plumarekin kasu

Fikzioa

SALDUENAK

1. 612 euro

Jon Arretxe. Erein.

2. Arma, tiro, bamm!

Joan Mari Irigoien. Elkar.

3. Egia esan

Peru Magdalena. Elkar.

4. Preso nago 2

Mikel Orbegozo. Ataramiñe kultur elkarteak.

5. Intemperies. Babes bila

Lourdes Oñederra. Erein.

6. Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak

Goiatz Labandibar. Elkar.

Ez Fikzioa

1. Donostia-San Sebastian arkitekturak

Ana Azpiri. Nerea.

2. Gamazada 1893-1894...

Nafarroa Bizirik Ekimena.

3. Donostia 1813. Txikizio baten...

Iñaki Egaña. Erein.

4. Enbataren zirimolan

Daniel Landart. Elkar.

5. Independentziaren paperak

Pako Aristi. Erein.

6. Euskomunitatea manifestu euskaltzalea

Mitxelko Uranga. Utriusque Vasconiae.

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Bilbo), Auzolan (Iruñea)

ERAKUSLEIHOA

MITOLOGIA

'EH-ko alegia, ipuin eta kondairak'

Luis Barandiaran lizar. Txertoa. 144 orr. 10,80 euro.



ALDIZKARIA

'Karmel. 283. zenb. Urrezko luma'

Hainbat autore. Julen Urkiza (zuz). 127 orr. 14 euro (urteko harpidetza).



GAZTE LITERATURA

'Piztien erronka'

Adam Blade. Miren Ibarluzea (itzul.). Desdée De Brouwer. 128 orr. 11 euro.



Arbasoen mentalitatea ezagutuz

Liburu honetan Anbotoko Damak, lamiek, jentilek eta antzeko izaki mitikoek dute aterpe, baita Ezoziko Andramarik eta beste ama birjina eta santu kristau batzuek ere. Izan ere, paganismoaren eta kristautasunaren arteko nahasketa da hemen bildutako testuen ezaugarrietako bat. Halaber, gure arbasoen mentalitatea nolako zen ulertzeko lagungarri da bilduma eta, bide batez —edo, beharbada, batez ere—, oso irakurketa erraz eta atsegina eskaintzen digu.

Merezitako urrezko luma(k)

Uztaila eta iraila bitarteko hilabetei dagokion 283. zenbaki honetan, besteak beste, Iñaki Sarriugarte mintzagai da 'Jose Angel Iribar: euskera eta kirola gogo-bihotzetan' deritzon gaiaz; Ana Urkizak, bestetik, Karmel aldizkari zuzendaritari eskaini dio 'Merezitako Urrezko luma Julen Urkizari' artikulua. Kontu-kontari atalean, 'Betti Betelu, Lapurdiko dantza-maisu nekazina' dakar Joseba Aurkenerenak, bertsoen txokoa Luis Baraiazarrari dagokiola.

Erresuma salbatuko duen heroia

Abantiak heroi bat behar du. Azti gaizto baten madarizioak Piztia magikoak sorigindu ditu. Lehen erresuma babesten zuten Piztiek, baina orain erresuma sunsitzetzen ari dira. Tagus Zaldigizona landetako herritarrak eta animaliak ikaratzen ari da. Tomek geldiaraziko ote du? Nerabeei zuzendutako bilduma erakargarri honek 'extra' bat dakar gainera: kromoak dakartza muxutrik liburuaren baitan; literatura jolas, nonbait.

ZALDI EROA



Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Koordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)
Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Narroa Etxebarria
Zuzenketak: Iratxe Gaztañaga
Portadako argazkia: Bide Ertzean
Lege Gordailua: BI 1720-06



Cehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · **musika** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

Dabilen harriari goroldiorik ez, eta Bide Ertzean dagoenari ere ez

Hamabost urte pasa dira **Bide Ertzean** taldeak bere lehen lana argitaratu zuenetik. Orain, '77' izeneko bederatzigarren lanarekin heldu dira tolosarrak, trantsizio garaiaz mintzo direla



JON ANDER URKIAGA EGIDAZU



“Batzuek uste dute poesiak musikatzen dituen taldea garela, baina gure bokazioa beti izan da letrak sortzea”, dio Imanol Ubedak gitarra jole eta abeslariak. JOSE MARI MARTÍNEZ

S EKULA ez gara talde masibo bat izan, gure irismena dena da, eta zentzu horretan gure diskoek ez daukate beste talde batzuek daukaten oihartzuna. Baina nik uste, taldeak gutxika lortu duela ikusle kopuru bat; beharbada, ez oso handia, baina badauka jarraitzaile kopuru bat atzetik”. Argi bezain umil kokatu du Imanol Ubedak (Tolosa, 1973), Bide Ertzean musika taldeko gitarra jole eta abeslariak, Tolosako taldea esparru musikalean.

Taldea jaio zenetik 15 urtera, *77* (Gaztelupeko Hotsak) izeneko bederatzigarren diskoarekin heldu dira tolosarrak. Hamabi abesti berri eta Garbiñe Ubedak eta Koldo Izagirrek egindako bi kontakizun biltzen ditu azken lan horrek, eta *Non dira* lanean egin bezala, memoria historikoari keinu bat eginda bueltatu da Bide Ertzean. “Gu jakin-minetik abiatu gara. Bizi ditugun urte hauek garrantzitsuak dira, baina 1977 inguruko trantsizio urte haiek ere oso garrantzitsuak izan ziren. Guk lau urte genituen, eta garai hori hobeto ezagutu eta ulertu nahi genuen. Oso bidaia aberatsa izan da zentzu horretan, eta bidaia hori egin nahi duenarentzat disko honetan norabide posible batzuk aurkeztu ditugu kantu eta literaturaren bitartez. Guk iradokizuna egin, eta amu horren bitartez norbaiti interesa pizten bazaio, gure helburua beteta geratuko da”, dio Ubedak.

Urteak joan eta urteak etorri diren era berean, lana ere mardul egin dute diskorik disko eta kontzerturik kontzertu talde tolosarreko kideek, baina gaur arteko bidean, azken hamabost urteak, oro har, urte atseginak izan direla nabarmendu du abeslariak: “Disko bakoitza ikasgai bat izan da. Gainera, musika bada Euskal Herria ezagutzeko beste modu bat, hainbat lagun ezagutu ditugu; beraz, bai musikalki, baina baita arlo pertsonalean ere, esperientzia ederra eta aberasgarria izan dira urte horiek guztiak”.

“Gustuko lana da musikan aritzea”, eta egun plazer handiz aritzen diren arren, beti ez dute hain argi izan heldu diren lekura helduko zirenik. “Gure lehen diskoa bost kantuz osatuta dago, eta guk kantu gehiago bagenituen, baina ez genuen ziurtasun

handirik. Nik Deabruak Teilatueta taldean gitarra jo besterik ez nuen egiten, baina hirukote bezala ekiterakoan, eta ni lehen aldiz kantari aritzean, zalan-tza asko genituen. Horregatik *Bide Ertzean* lehen diskoaren argitalpenaz hizketan hasi ginenean, bost kantu egitea adostu genuen, ondoren oholtzan nola moldatzen ginen eta nolako harrera genuen ikusteko”. Eta bete-betean asmatu zuten; harrera ikaragarri ona izan zutela dio Ubedak, eta, era berean, zuzenean uste baino erosoago sentitu zirela.

Imanol Ubedak argi dauka Fran Iturbe gitarran, Joserra Senperena teklatueta, Karlos Arancegui baterian, Joni Ubedak gitarra apalean eta bera kantuan zein gitarran direla Bide Ertzean osatzen dutenak. Hala ere, Arancegui eta Ubedak anaien osatu zuten lehen disko hartako hirukoa da *77* lanean bueltatu dena. Imanol Ubedaren arabera, bi etapa daude taldearen historian: taldearen izen bera duen lehen diskotik *Non dira* diskora artekoa, eta disko horretatik gaur arte. “2006tik hona sendotu egin da boskotea, bai zuzenekoetan, bai estudioko lanean. Baina, aurreko bira, *Don Inorrez* diskoarena, bukatu eta bi hilabetera hirukote bezala entseatzeko hasi ginen, eta kantu berriek bazuten oinarri-oinarrian hirukote modura funtzionatzen zuten zerbait. Orduan ariketa musikal gisa planteatu genuen hiruroen artean grabatzea, inolako osagarri eta apaingarririk gabe. Eta, hala, elkarrekin batera zuzenean joz egin dugu grabaketa”.

Hirukote modura hasi zirenean, kantautore kutsu bat bazutela uste du Ubedak: “Hau da, nik nire gitarra akustikoarekin lauzpabost poema musikatu ondoren, Joni Ubedak eta Karlos Arancegui akonpainamendu lanak egiten zituzten”. Baina, lasterre-ra, Labrit eta Fran Iturbe sartu ziren, eta kantautore ukitu horretatik pop talde estandar batera pasa ziren, eta *Zure minari* litzateke eraldaketa horren isla. Baina taldeak beste kezka artistiko eta gustu musikal batzuk ere bazituela dio tolosarrak, eta *Grisa* izan zen horren lekuko. “Ez genuen estilo bateratu bat nahi, taldeari kolorea eman nahi genion, horrela, *Grisa* izan daiteke gure disko rockeroena. Karlos Arancegui Mikel Erentxunekin jozen zuten sasoi hartan, eta Joserra Senperena eza-

“Aurreiritzi gutxi dugu; beti egon gara musikalki gauza berrietara zabalik, eta hori ere bada talde bizia izan garenaren seinale”



KONTRALDEA

TXANI RODRÍGUEZ

GALDER PÉREZ

AKTOREA ETA KAZETARIA

“Gustatuko litzaidake kabaret bat egitea katedral batean”



Argia, haur bihurri baten energiarekin, ipur-zirina dugu **Galder Pérez**. Mikrofono aurrean, hitz jarioa; eszenatoki gainean, hamaika arimaren jabe. Kazetari, gidoilari eta aktore lanak –denak batera– egiten ditu bere nortasunaren puzzlea osatzeko

UDAZKEN honetan ez du izango urta-roak dakarren malenkoniarik. Zuzendari eta egile bezala haurrentzako *Hansel eta Gretel* eta endreduzko komedia bat estreinatuko ditu urrian. Aktore gisa, Ane Zabalaekin batera tragikomedia absurdoaren generoan barneratuko da berriro. Eta Gaizka Sarasolak idatzitako *Urak tiki dire* estreinatuko du azaroan. Galder eta Galder eta Galder.

Hamaika urterekin hasi zinen Radio Euskadin lanean; jubilariorako izango ziren arazoak sumatu zenituen ala?

Bai, noski, horregatik hasi nintzen lanean horren gazte. Kalkuluak eginak ditut eta 80 urte ditudanerako jubilatze aukera izango dut. 70ekin jubilatua ahal izateko, hobe hiru urterekin lanean hasi izan banintz, baina, tira, haurtzaroko urte gutxi batzuk gozatzeko aukera izan nuen behintzat...

Garai horietako oroipen berezi bat?

Irrati saio bat egiteko kutxa erraldioarekin joaten ginen estudioa, bobina, kartutxo eta bini-lozko diskoek betetako fruta kutxa horietako bat. Irratia ez fisikoki soilik, estetikoki eta eduki aldeetik beste modu batez egiten zen, oso pertsonalak ziren irratsaio guztiak. Orain komunikabideetan homogeneizazio itzela dago, marka hutsak dira bilatzen direnak, nortasunik gabekoak. Nora eta nola goazen ikusita, nola ez gara bada nostalgiko eta erromantikoak izango?



Musikan sakontzea nahiko luke: “Aritzen naiz, baina txapuza galantak egiten ditut!”. MENDI



Hedabideetan homogeneizazio itzela dago orain. Nora goazen ikusita, nola ez gara ba nostalgiko eta erromantikoak izango?”

Curriculum luzea duzu, baina zein izan da egin duzu lanik arraroena?

Etortzeko daudenak izatea espero dut. Orain bideoklip bateko protagonista izatea eskaini didate eta pozik nago. Izaki Gardenak taldearen *Amaieratik hasi* disko berriaren aurkezpen kantuarren klipa, *Zainak zain*. Taldea itzela da eta kanta ere ederra. Ander Lauzirikaren zuzendaritzapean ari gara. Bideoklipak irensten ditut... Ze gauza onak egiten diren! Musika ere nire zaletasunik handienetakoa da –aspalditik zintzilik daukat musikan sakontzea–. Aritzen naiz, baina txapuza galantak egiten ditut! Aurten gitarrarekin hasteko asmoa daukat; ea ez den kurtsio hasierako proposamen zuri horien zerrenda hutsean geratzen.

Aktoreek badakizue ziria sartzen. Orduan, noiz fidatu zuetaz?

Guk fikzioa egiten dugu. Okerrago da informazio edo ustezko objektibitate baten izenean, egia kontatzen ari zaizkigulakoan, ziria sartzen digutenean. Edo bide zuzenaren izenean bidegabeko erabakiak hartzen direnean, edo lekuz kanpoko arauak betetzearren zigortu dezaketena... Horiek fidatzekoak ez direla uste dut; gure gezurra ikuskizuna bukatzerakoan lurruntzen da.

Euskaldunon historia zinemara eramango bazenu, komedia ala tragedia bat ekoiztuko zenuke?

Momentuz uste dut beste genero bat hartuko nuela: zientzia-fikzioa. Batzuetan sentsazio hori daukat, ez dagoela gauzak aurrera ateratzeko borondatearik eta errazena dela dena bere horretan jarraitzea, hori tragikomedia itzela da!

Zein izango litzateke 2014rako gidoi perfektua?

Gidoi perfektua izateko eduki perfektuak behar litzateke, eta horretarako gertaera asko jaso beharko ziren eta hori jasotzeko iraupena luzea da, baina iraupen luzea jasateko erritmoa itzela behar du izan, eta erritmo gehiegi ez da komeni istorioan sakontzeko, gehiegi sakonduz gero perfektio bera... Barkatu, zein zen galdera?

Ahaztu zait. Galdera berri bat: aktore gehienek esaten dute nahiago dutela antzerkia zinema baino. Zure kasuan hala da?

Ba... beharbada ez. Zinea egiteko aukera gutxi egoten da eta nik izugarri disfrutatzen dut egiten dudana bakoitzean. Lan-talde handiak dira, bakoitzak eginkizun zehatza dauka, dena oso ondo antolatuta egon behar da. Pantaila aurrean agertzen direnak aktoreak badira ere, pieza txikia baino ez da interpreteena. Ederra da horrela sentitzea, izugarriko lan-talde handi baten parte zara. Interpretazioan beste modu batean sakontzeko aukera ematen dizu, gainera. Zinea antzerkia baino gehiago egingo banu kontrako esango nuke ziurrenik.

Antzokiak eta plazak alde batera utziz, non gustatuko litzazuke kabaret bat egitea?

Katedralen batean. Gasteizen, esaterako. Ze dekoratu natural perfektua kabareta egiteko! Agian posible da, begira ezazu Durango, Oñati edo Balmasedako antzokiak, eliza izandakoak, edo Bilborock bera. Baina katedrala bere horretan dagoen bezala mantendu beharko litzateke.

Euskal Herrian nola dago 'laugarren paretaren' ospetsu hori?

Ikusezina, laugarren paretak izan behar duen bezala. Baina, tamalez, ez zentzu figuratiboan soilik... Ez dago arte eszeniko edo plastikoen behararen inguruko inolako kontzientziarik edo heziketarik. Baina ez dadila inor larritu, arrosa kolorez margotuko ditugu paretak guztiak!

Gurean musikalak bogan dauden honetan, nork uste duzu egingo lukeela ondo 'El Rey León'-en papera?

Bertsolari batek, zalantza barik. Maialen Lujanbiok berak adibidez, gure txapeldunak. Edo abenduko finalean txapeldun ateratzen denak. Ez litzateke amu txarra izango.

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak • hizkuntza aholkularitza • papergintza



www.artez.net
posta@artez.net
944 480 000